



Office public de
la langue basque

Renouvellement pour 2021-2025 du partenariat avec la Communauté Autonome d'Euskadi et la Communauté Forale de Navarre

Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitateekiko partaidetzaren arraberritzea 2021-2025 epeldirako

Contexte et présentation du projet :

Le Gouvernement de la Communauté Autonome basque et l'Office Public de la Langue Basque ont noué depuis 2007 un partenariat transfrontalier en matière de politique linguistique en faveur de la langue basque.

Cette coopération transfrontalière a permis, entre autres, de mettre en œuvre des projets d'envergure comme les enquêtes sociolinguistiques de 2011 et 2016 ou le Système d'indicateurs de la langue basque EAS, pour lesquels le partenariat a été élargi à la Navarre.

Ces premières expériences de coopération ayant mis en évidence l'intérêt pour les trois entités de mettre en place un partenariat permanent étendu à l'ensemble des trois territoires de la langue basque et élargi à d'autres domaines d'action intéressant la politique linguistique, une première convention fixant le cadre du partenariat et définissant les domaines et modalités de coopération pour la période 2017-2021 a été signée le 3 juillet 2017 à Pampelune.

Après évaluation positive de cette première coopération et de son intérêt stratégique, les trois parties ont décidé de reconduire ce partenariat pour la période 2021-2025.

Cet accord tripartite ne remplissant pas au regard de la loi espagnole les conditions minimales pour être qualifié de convention, a été requalifié de protocole général de coopération.

Ce protocole général de coopération, qui est joint en annexe, prévoit comme la convention précédente de développer la coopération entre les trois partenaires dans les domaines de l'éducation, de l'enseignement du basque aux adultes, du développement de l'usage de la langue basque, de la sensibilisation, des études sociolinguistiques, du corpus linguistique ainsi que de travailler conjointement à l'intégration des enjeux de la politique linguistique dans les financements européens.

Comme précédemment, les modalités de coopération seront déclinées chaque année dans une annexe annuelle venant préciser l'ensemble des actions concrètes à mettre en œuvre.

Testuingurua eta proiektuaren aurkezpena:

Euskal Autonomia Erkidegoak eta Euskararen Erakunde Publikoak, euskararen aldeko hizkuntza politikari buruzko partaidetza garatu dute 2007az geroztik.

Mugaz gaindiko lankidetza honi esker, maila handiko proiektuak obratzen ahal izan dira, hala nola, besteak beste, 2011 eta 2016ko inkesta soziolinguistikoak edo Euskararen Adierazle Sistema (EAS), azken honentzat partaidetza Nafarroara hedatua izan baita ere.

Lankidetzan obratu lehen esperientzia horiek agerian ezari dute hiru erakundearen artean euskararen eremu guzian hedatu partaidetza iraunkor bat antolatzearen interesa, hizkuntza politikari dagozkion beste jarduerak esparruetara zabalduz.

Partaidetza horren arlo eta lankidetzaren modalitateak finkatzen eta definitzen dituen hitzarmena egin da.

Hitzarmenak beraz hezkuntzaren, helduen euskalduntzearen, euskararen erabileraren, ikerketa soziolinguistikoaren, corpus linguistikoaren, eta sensibilizatzearen alorretan hiru partaideen arteko lankidetza aurreikusten du, baita Europako finantzamendu-bideetan hizkuntza politikaren erronkak kontuan hartzeko elkarrekin lanean aritzea ere.

Délibération :

Sur la base de ces éléments, l'Assemblée Générale de l'OPLB décide :

- d'approuver le protocole général de coopération entre l'OPLB, le Gouvernement de la Communauté Autonome d'Euskadi et la Communauté Forale de Navarre pour la période 2021-2025 ;
- d'autoriser le Président de l'OPLB à signer ledit protocole avec les représentants des Gouvernements Basque et Navarrais.

Adopté à l'unanimité.

Erabakia:

Elementu horiek kontuan harturik, EEPko Biltzar Nagusiak erabakitzen du:

- Txosten honi lotua doakion Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitateekiko partaidetza hitzarmena onartzea,
- EEPren Presidenteari baimena ematea hitzarmena, Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako gobernuetako ordezkariekin izenpetzeko.

Aho batez onartua.

PROTOCOLE GENERAL DE COOPERATION 2021-2025 EN MATIÈRE DE POLITIQUE LINGUISTIQUE ENTRE LE MINISTÈRE DE LA CULTURE ET DE LA POLITIQUE LINGUISTIQUE DU GOUVERNEMENT BASQUE, LE MINISTÈRE DES RELATIONS CITOYENNES DU GOUVERNEMENT FORAL DE NAVARRE ET L'OFFICE PUBLIC DE LA LANGUE BASQUE.

Fait à XXXXX, le XX XXXXXX XXX

Entre les soussignés :

D'une part, **Bingen Zupiria Gorostidi**, le Ministre de la Culture et de la Politique linguistique du Gouvernement de la Communauté Autonome d'Euskadi, conformément à l'autorisation accordée par le Conseil gouvernemental du XX XXXX XXX,

D'autre part, **Ana Ollo Hualde**, la Ministre des relations citoyennes du Gouvernement Foral de Navarre, conformément à la décision du Gouvernement de Navarre du XX XXXX XXX,

D'autre part, **Antton Curutcharry**, Président de l'Office public de la langue basque, conformément à la décision de l'Assemblée générale du 14 octobre 2021.

Agissant au nom de leurs institutions respectives sont habilités à mettre en œuvre les dispositions du présent accord, et à cet effet

DECLARENT :

- Que la Constitution espagnole, le Statut de Gernika et la loi organique de la réintégration et de l'amélioration du régime Foral de Navarre confèrent aux communautés autonomes la possibilité de coopérer en matière de langue basque.
- Que l'Etat français, le Conseil Régional d'Aquitaine, le Conseil Départemental des Pyrénées-Atlantiques, le Syndicat Intercommunal de soutien à la culture basque et Le Conseil des élus du Pays Basque ont constitué en 2004, pour une durée de 6 années, le Groupement d'intérêt public « Office Public de la langue basque » ayant pour mission de définir et mettre en œuvre une politique linguistique publique et concertée en faveur de la langue basque ; que le GIP a été reconduit en 2010 pour une nouvelle période de 6 ans ; que le GIP a été renouvelé en 2017 en intégrant la Communauté d'Agglomération Pays Basque créée le 1er janvier 2017 comme membre de l'OPLB représentant des communes du Pays Basque, en lieu et place du Syndicat intercommunal pour le soutien à la culture basque et du Conseil des élus du Pays Basque.

- Que le Gouvernement de la Communauté Autonome Basque, le Gouvernement de Navarre et l'Office public de la langue basque choisissent la voie de la coopération, en se basant toujours sur le respect mutuel et institutionnel, et en tenant compte des différentes réalités politiques et sociolinguistiques des territoires et du cadre législatif de chaque partenaire.
- Que la collaboration entre les trois entités est nécessaire en matière de promotion et de développement de la langue basque afin d'éviter les doublons et les coûts inutiles et afin d'atteindre une efficacité maximale.
- Que le 3 juillet 2017 a été signée à Pampelune la première convention de coopération entre le ministère de la Culture et de la Politique linguistique du Gouvernement de la Communauté autonome d'Euskadi, le Ministère des relations institutionnelles et citoyennes du Gouvernement foral de Navarre et l'Office public de la langue basque.
- Qu'après évaluation positive de cette première coopération et de son intérêt stratégique, les trois parties conviennent de renouveler cet accord de coopération et de mettre en œuvre les dispositions suivantes :

PREMIÈRE PARTIE : Objet

L'objet du présent protocole général de coopération est de promouvoir la coopération entre les 3 signataires sur des domaines précis relatifs à la promotion de la langue basque. Chacune des entités pourra mettre en œuvre ou développer les programmes décrits dans le présent document dans la mesure de ses possibilités économiques.

DEUXIEME PARTIE : Domaines d'application

Les domaines d'application sont les suivants :

1. L'Éducation et l'enseignement du basque aux adultes

1.1 L'Éducation

Les trois parties conviennent de développer des actions de coopération visant à renforcer le domaine de l'enseignement de la langue basque et prévoient notamment de :

- a) Favoriser la mobilité et les échanges des élèves, et encourager les programmes d'échanges transfrontaliers pour les élèves.
- b) Analyser les modalités d'accès à l'enseignement supérieur pour les étudiants qui souhaitent poursuivre leurs études supérieures sur un autre territoire.

1.2 L'enseignement du basque aux adultes

Les trois signataires conviennent de coopérer sur les politiques et dispositifs qu'ils mettent en œuvre en matière d'enseignement de la langue basque aux adultes, en poursuivant leur coopération sur les domaines suivants :

- a) Le Curriculum de l'enseignement de la langue basque aux adultes ainsi que la production et la diffusion des matériels, en tenant compte des besoins et des spécificités de chaque territoire.
- b) La formation des formateurs de l'enseignement du basque aux adultes.
- c) L'échange d'information sur les pratiques existantes, notamment concernant les dispositifs d'appui financier ainsi que les outils de suivi et évaluation des apprenants et des centres de formation.

1.3 Évaluation et certification des compétences linguistiques

Les trois parties travailleront conjointement à la conception des systèmes d'évaluation et de certification du niveau de compétence en langue basque en se basant sur le Cadre européen commun de référence pour les langues, ainsi qu'à la reconnaissance mutuelle des certificats établis par les trois parties.

2. Renforcement de l'usage de la langue basque

2.1 Dans le domaine des loisirs

Dans le domaine des loisirs, les activités hors cadre scolaire destinées aux enfants et aux jeunes (séjours linguistiques, accueil de loisirs...) seront encouragées, tout en cherchant à faciliter les échanges des enfants et des jeunes sur les trois territoires.

2.2 Dans le domaine du sport

Les trois partenaires échangeront les informations relatives aux stratégies et moyens existants de promotion de la langue basque dans le domaine du sport, et si opportun, la possibilité de développer des projets communs sera examinée, en particulier ceux destinés aux enfants et aux jeunes.

2.3 Dans l'environnement numérique

Les trois parties échangeront l'information relative aux ressources en langue basque existantes dans l'environnement numérique afin d'éviter les doublons dans le travail de création et d'adaptation en langue basque de ces ressources.

D'autre part, le développement des technologies linguistiques sera encouragé et les corpus et les ressources créés seront partagés.

2.4 Dans le secteur socio-économique

Les trois parties échangeront leurs expériences et pratiques en matière de promotion de la langue basque dans le domaine socio-économique. De la même manière, les signataires favoriseront les projets partenariaux visant la promotion de la langue basque dans le monde de l'entreprise.

D'autre part, le partage d'expériences et l'analyse de politiques visant le développement de l'usage de la langue basque tant dans les organismes publics que privés seront encouragés.

2.5 Dans le domaine des médias

Outre le partage des pratiques et des stratégies existantes pour le développement des médias d'expression basque sur les trois territoires, les études de mesures d'audience des médias en basque seront travaillées conjointement.

3. Réflexion sur la langue basque, promotion et formation

3.1 Sensibilisation et promotion de la langue basque

Les signataires conviennent de collaborer ou de participer à la mise en place de programmes de sensibilisation et de promotion en faveur de la langue basque. La participation aux événements organisés par les trois parties sera encouragée, et si opportun, les outils produits feront l'objet d'une présentation publique.

3.2 Espaces de réflexion et formation

Les espaces de réflexions, commissions ou forums créés par l'un des partenaires seront accessibles aux deux autres, quand des sujets d'intérêt commun du domaine de la politique linguistique y seront traités.

De la même manière, les possibilités de mutualisation des formations spécifiques liées à la politique linguistique mises en œuvre par chacune des parties seront étudiées.

4. Études sociolinguistiques et corpus linguistique

4.1 Études sociolinguistiques

Les trois parties travailleront de concert au recueil de données à la fois compatibles sur l'ensemble du territoire de la langue basque et utiles à la structuration des politiques linguistiques de chaque territoire.

Ainsi, ils pourront échanger les informations relatives aux études et analyses sociolinguistiques et partager leurs expériences en matière de définition et de mise en œuvre de systèmes d'indicateurs sociolinguistiques et de politique linguistique.

Les nouveaux domaines d'étude considérés comme intéressants pour connaître la situation et l'évolution de la langue basque seront proposés et analysés.

4.2 Corpus linguistique

Les trois parties poursuivront la coopération dans le domaine du corpus linguistique, afin de répondre aux besoins liés à ce domaine (mémoires de traduction, banques de terminologie, dictionnaires...).

5. Collaboration dans le cadre européen

Les trois signataires conviennent de continuer à présenter des projets aux financements européens en fonction des opportunités et de travailler conjointement à l'intégration de la politique linguistique dans les futurs programmes opérationnels du POCTEFA.

TROISIÈME PARTIE : Durée du protocole

Ce protocole conclu pour une durée de 4 ans prend effet à compter de sa signature par les trois parties. Avant la fin de cette période, les signataires peuvent à tout moment décider d'un commun accord de mettre fin à ce protocole ou de le prolonger pour une nouvelle période de 4 ans.

QUATRIÈME PARTIE : Suivi du protocole

a) Comité de suivi

Afin d'assurer le suivi de la mise en œuvre du présent protocole général de coopération, les signataires décident de créer une commission mixte paritaire composée de six membres : deux membres nommés par le ministère de la Culture et de la politique linguistique du Gouvernement Basque, deux autres nommés par le Ministère des relations citoyennes du Gouvernement Foral de Navarre, et deux autres nommés par l'Office public de la langue basque.

En fonction de l'ordre du jour, les représentants d'un autre département ou d'un autre organisme du Gouvernement basque pourront participer aux réunions de cette commission mixte.

De la même manière, lorsque l'ordre du jour requiert leur présence, les représentants d'un autre département ou d'un autre organisme du Gouvernement de Navarre pourront participer aux réunions du comité mixte.

De manière générale, lorsque les circonstances l'exigent, les représentants de toute autre entité pourront également participer aux réunions du comité mixte.

Chaque partenaire bénéficiera de l'assistance de ses services techniques pour la mise en œuvre des missions de la commission mixte. Cependant, pour développer certaines actions spécifiques, lorsque cela s'avèrera nécessaire, un comité technique, pour lequel chaque partie devra nommer ses représentants, sera formé.

La commission mixte désignera au début de chaque année un secrétaire technique chargé d'établir le procès-verbal de chaque réunion.

b) Fonctionnement

Le comité mixte se réunit au moins une fois par an et à chaque fois que l'un des signataires en fait la demande.

Le comité mixte définit et propose chaque année le programme des actions concrètes à mettre en œuvre et en évalue ensuite les résultats. Ce programme d'action est soumis à l'approbation des instances délibérantes de chaque partie.

La participation, la présence et l'image des trois partenaires seront assurées lors de la présentation, de la mise en œuvre et de la communication des projets réalisées dans le cadre du présent protocole général de coopération, et les principes de la coopération et du partenariat seront soulignés.

DISPOSITIONS FINALES

Le présent protocole général de coopération pourra être modifié avec l'accord des trois signataires. Toute modification du protocole devra faire l'objet d'un avenant.

Conformément à ce qui a été convenu précédemment, ce protocole général de coopération spécifique est signé en basque, en espagnol et en français, en trois exemplaires, en lieu et date susmentionnés.



Pour le Gouvernement de la
Communauté Autonome Basque :

Pour le Ministère des relations
citoyennes du Gouvernement Foral de
Navarre :

Bingen ZUPIRIA GOROSTIDI,
Ministre de la Culture et de la Politique
linguistique

Ana OLLO HUALDE,
Ministre des relations citoyennes

Pour l'Office public de la langue basque :

Antton CURUTCHARRY,
Président de l'OPLB

EUSKO JAURLARITZAREN KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAREN, NAFARROAKO GOBERNUAREN HERRITARREKIKO HARREMANETAKO DEPARTAMENTUAREN, ETA EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOAREN ARTEKO LANKIDETZA PROTOKOLO OROKORRA EUSKARAREN SUSTAPENARI BURUZKOA, 2021-2025 EPEALDIRAKO.

Baionan, 2021eko urriaren 22an

BILDU DIRA:

Alde batetik, **Bingen Zupiria Gorostidi**, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuaren Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, 2021eko uztailaren 20ko Gobernu Kontseiluak hartutako Erabakiarekin bat,

Beste alde batetik, **Ana Ollo Hualde**, Nafarroako Gobernuaren Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria, Nafarroako Gobernuak 2021eko uztailaren 28an hartutako Erabakiarekin bat,

Eta bestetik, **Antton Curutcharry**, Euskararen Erakunde Publikoaren lehendakaria, 2021eko urriaren 14ko Biltzar Nagusiak hartutako Erabakiarekin bat,

Hiru aldeek, beren erakundearen ordezkari moduan jarduten dute, egintza hori gauzatzeko ahalmena dute eta ondorio horretarako

ADIERAZTEN DUTE:

- Espainiako Konstituzioak, Gernikako Estatutuak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak Euskal Autonomia Erkidegoari eta Nafarroako Foru Komunitateari aukera ematen diela euskararen arloan elkarlanean aritzeko.
- 2004an frantses Estatuak, Akitania Eskualdeko Kontseiluak, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak, Euskal Kulturaren Aldeko Herrien Arteko Sindikatuak eta Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluak, Euskararen Erakunde Publikoa sortu zutela, 6 urterako, honen eginkizuna izanik, euskararen aldeko hizkuntza politika publikoa eta hitzartua asmatzea, definitzea eta obratzea; 2010ean, beste sei urterako berritu zutela; 2017an Euskararen Erakunde Publikoa berriztatu zela, berriz ere 6 urterako, 2017ko urtarrilaren 1ean sortu den Euskal Hirigune Elkargoa integratuz Ipar Euskal Herriko herrien ordezkari gisa, Euskal Kulturaren Aldeko Herrien Arteko Sindikatuaren eta Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluaren ordezkari.

- Euskal Autonomia Erkidegoaren Gobernuak, Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernuak eta Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoak elkarlanaren bidea aukeratu dutela, beti abiatuz erakundeek elkarri dioten errespetutik eta lurralde errealitate politiko eta soziolinguistikotik, legeek lurralde bakoitzari ematen dizkieten eskumenen esparruan.
- Euskara sustatzeko eta garatzeko bidean komeni dela hiru erakundeak elkarlanean aritzea, beharrezkoak ez diren bikoiztasunak eta gastuak saihesteko eta ahalik eta eraginkortasunik handiena lortzeko.
- Horiek horrela, 2017ko uztailaren 3an, Iruñean, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren, Nafarroako Gobernuaren Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuaren, eta Euskararen Erakunde Publikoaren arteko lehenengo Lankidetza Hitzarmena sinatu zela.
- Hitzarmen honen balorazio positiboa egin ondoren, eta alde guztien interesak kontuan hartuta, hiru aldeek erabaki dutela Lankidetza Protokolo Orokor hau berrestea eta honako KLAUSULA hauek betetzea:

LEHENA.- Xedea

Lankidetza Protokolo Orokor honen xedea da hiru sinatzaileen arteko lankidetza bultzatzea euskararen sustapenari dagozkion alderdi jakin batzuetan. Erakunde bakoitzak protokolo honetan bildutako programak egin edo garatuko ditu, nork bere ahal ekonomikoen heinean.

BIGARRENA- Ezarpen esparruak:

Ezarpen-esparruak ondoko hauek dira:

1. Hezkuntza eta helduen euskalduntzea

1.1. Hezkuntza

Hiru aldeak ados daude euskarazko irakaskuntzan garatzeko egiten dituzten ekintzetan lankidetza bultzatu behar dela. Horretarako honako esparru hauek lantzeko asmoa adierazten dute:

- a) Ikasleen mugikortasuna eta trukeak sustatzea; lurralde batetik bestera ikasleak mugitzeko programak bultzatzea.

- b) Goi-mailako ikasketak beste lurralde batean egin nahi dituzten ikasleentzat eskoletako eta unibertsitateetako sarbide aukerak eta moduak aztertzea.

1.2. Helduen euskalduntzea

Hiru aldeak ados daude helduentzako euskararen irakaskuntza arloan obratzen dituzten politika eta dispositiboaren inguruan lankidetzan jarduteko, bereziki honako arloetan:

- a) Helduei euskara irakasteko curriculumaren garapena eta materialen prestaketa eta hedapena, lurralde bakoitzaren beharrak eta berezitasunak kontuan hartuz.
- b) Irakaskuntza horretan aritzen diren irakasleen berariazko prestakuntza bultzatzea.
- c) Dauden praktikei buruzko informazioa trukatzeko, hala nola, dirulaguntza dispositiboari eta ikasleen eta prestakuntza-zentroen jarraipenerako eta ebaluaziorako tresnei buruz.

1.3. Hizkuntza gaitasunen ebaluazioa eta egiaztatzea

Elkarlanean arituko dira hiru aldeak euskararen gaitasun-maila ebaluatzeko eta egiaztatzeko probak eta sistemak diseinatzerakoan Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Marko Bateratua oinarri harturik, eta hiru aldeek luzatutako ziurtagiriek elkarrekiko onespina izan dezaten.

2. Euskararen erabilpenaren sustatzea

2.1. Aisialdian

Eskolatik kanpo, aisialdiaren arloan bereziki haur eta gazteei zuzendutako egitasmoak sustatu eta garatuko dira (hizkuntza egonaldiak, udalekuak...) lurralde ezberdinetako haur eta gazteen arteko trukerako bideak aztertzen jarraituz.

2.2. Kirolean

Kirol arloan, hiru eremuetan euskara sustatzeko dauden estrategiak eta baliabideak partekatuko dira, eta aukera izanez gero proiektuak elkarren artean obratzeko paradak aztertuko dira, bereziki haur eta gazteei zuzendutako egitasmoak.

2.3. Ingurune digitalean

Hiru aldeek ingurune digitalaren esparruan dauden euskarazko baliabideen inguruko informazioa partekatuko dute, baliabide horiek euskaraz sortu edo egokitzeko ahaleginetan bikoiztasunik egin ez dadin.

Bestalde, hiru aldeak hizkuntza teknologiak garatzeko eta bultzatzeko lankidetzan arituko dira; sortutako corpusak eta baliabideak partekatuko dira.

2.4. Arlo-sozioekonomikoan

Hiru aldeek arlo-sozioekonomikoan euskara sustatzeko diren praktikak eta esperientziak partekatuko dituzte. Era berean enpresetan euskara sustatzeko elkarlanean garatzeko egitasmoak bultzatuko dituzte.

Bestalde erakunde publiko zein pribatuetan euskararen erabilera plan ereduak aztertuko dira eta esperientziak partekatzeko modua sustatuko da.

2.5. Euskarazko hedabideetan

Hiru eremuetan euskarazko hedabideak sustatzeko dauden praktikak eta estrategiak partekatzeaz gain, euskarazko hedabideen gaineko ikerketak elkarlanean bultzatuko dira.

3. Euskarari buruzko gogoeta, sustapena eta prestakuntza

3.1. Euskararen aldeko sentsibilizazioa eta sustapena

Hiru aldeak elkarlanean arituko dira euskararen aldeko sentsibilizazioa eta sustapeneko programak egiten edo haietan parte hartzen. Hiru aldeek antolaturiko ekitaldietan parte hartzea sustatuko da, eta, egokitzat jotzen denean, sortutako materialen hedapena bultzatuko da.

3.2. Gogoeta guneak eta prestakuntza

Gogoetarako alde batek sortutako gune, batzorde edo foroan beste alde biek parte hartzeko modua egingo da, beti ere hizkuntza politikaren arloan interes komuneko gaiak aztertzen direnean.

Hizkuntza Politikaren gainean alde bakoitzak antolatzen dituen berariazko prestakuntza partekatzeko aukerak aztertuko dira.

4. Ikerketak eta hizkuntzaren corpora

4.1. Ikerketa soziolinguistikoak

Hiru aldeak elkarlanean arituko dira datu bilketa lanetan, euskararen eremu osorako bateragarriak izan daitezen eta aldi berean lurralde bakoitzeko hizkuntza politikak egituratzeko baliagarriak.

Hala, azterlan eta ikerketa soziolinguistikoen gaineko informazioa elkarri trukatu diote eta esperientziak partekatuko dituzte, adierazle soziolinguistikoen sistemak eta hizkuntza politika prestatzeari eta garatzeari dagokienez.

Euskararen egoera eta bilakaera ezagutzeko interesgarri jotzen diren bestelako ikerketa bide berriak proposatu eta aztertuko dira.

4.2. Hizkuntzaren corpora

Hiru aldeek egokia ikusten dute hizkuntzaren corpusaren alorrean elkarlana sustatzea; horretarako, eremu horri lotutako beharrezanez erantzuteko modua egingo da, itzulpen memoriak, terminologia bankuak, hiztegigintza eta antzekoetan.

5. Lankidetza Europako markoan

Hiru aldeak lankidetzan arituko dira, aukeren arabera proiektuak Europear finantzaketetan aurkeztu jarraitzeko eta POCTEFaren etorkizuneko programa operatiboetan hizkuntza politika integratzeko.

HIRUGARRENA- Indarraldia

Lankidetza Protokolo Orokor honek sinatzen den unean hartuko du indarra, eta lau urteko indarraldia izango du. Epe hori amaitu aurreko edozein unetan, protokolo hau sinatzen dutenek aho batez hitzartu ahal izango dute protokoloaren luzapena beste lau urterako, edo haren iraungitzea.

LAUGARRENA- Lankidetza Protokolo Orokorren kudeaketa eta jarraipena

a) Protokoloaren kudeaketa

Lankidetza Protokolo Orokor honen kudeaketaren arduradunak, Nafarroako Gobernuaren Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua, Eusko Jaurlaritzaren

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Euskararen Erakunde Publikoa izango dira.

b) Jarraipenerako batzordea

Lankidetza Protokolo Orokorrak honen betetze-mailari jarraipena egiteko, aldeek adostu dute hiru aldeko Batzorde Mistoia eratzea. Batzorde horrek sei kide izanen ditu: bi, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak izendatuak, beste bi, Nafarroako Gobernuaren Herriarrekiko Harremanetako Departamentuak izendatuak, eta beste biak Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoak izendatuak.

Batzorde horretan parte har dezakete Eusko Jaurlaritzako beste Sail edo erakunde baten ordezkariak landu beharreko gaiak haiek egotea eskatzen duenean.

Batzorde horretan parte hartu dezakete Nafarroako Gobernuako beste Departamentu edo erakunde baten ordezkariak, landu beharreko gaiak haiek egotea eskatzen duenean.

Halaber, gaiak horrela eskatzen duenean bestelako entitateak parte hartzeko bidea egingo da.

Batzordeak, izango dituen egitekoak gauzatzeko, alde bakoitzaren zerbitzu teknikoen laguntza izango du. Hala ere, jarduerak garatzeko, beharrezkoa denean, batzorde teknikoak eratuko dira, eta alde bakoitzak ordezkariak izendatuko ditu.

Batzordeak idazkari teknikoa izendatuko du urtero, urtearen hasieran, eta idazkariak bilera bakoitzeko akta idatziko du.

c) Jarduteko modua

Batzorde mistoa bilduko da, gutxienez urtean behin eta alde bakoitzak eskatzen duen guztietan.

Batzorde mistoari dagozkio ekitaldi bakoitzean egin beharreko jarduera zehatzen azterketa eta jarduera planaren proposamena egitea bai eta erabakien balorazioa egitea ere. Jarduera plan hori partaide bakoitzaren erabaki guneetan onartuko da.

Lankidetza Protokolo Orokorren ildotik burutzen diren egitasmoak aurkezteko, garatzeko eta komunikatzeko unean, hiru aldeek parte hartzea, presentzia eta irudia bermatuko dira, elkarlanaren eta lankidetzaren printzipioak azpimarratuko direlarik.

AZKEN XEDAPENA

Lankidetza Protokolo Orokor hau alda daiteke hiru aldeak aldaketarekin ados badaude; horretarako behar den eranskina gehituko zaio protokoloari.

Aurrekoarekin bat eginez, Berariazko Lankidetza Protokolo Orokor hau izenpetu dute, euskaraz, gaztelaniaz, zein frantsesez, hiru aletan, gorago aipatutako lekuan eta egunean.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta
Hizkuntza Politika Sailaren izenean

Nafarroako Gobernuako Herritarrekiko
Harremanetako Departamentuaren
izenean

Bingen Zupiria Gorostidi
Kultura eta Hizkuntza Politikako
sailburua

Ana Ollo Hualde
Herritarrekiko Harremanetako
kontseilaria

Euskararen Erakunde Publikoaren izenean

Antton Curutcharry,
Euskararen Erakunde Publikoaren lehendakaria